

UDALETAKO MOZIOEN GIDA



basobiziakplataforma@gmail.com

SARRERA

GIDA HONEN ZERGATIAK

NORTZUK GARA?

BASO BIZIAK PLATAFORMA 2021eko martxoan sortu zen **BASO BIZIEN** inguruko aldarriak eta taldeak batzeko eta bideratzeko asmoz.

Lehen ekimen gisa, ekainaren 12an Dimako baserri batean, **BASO BIZIEN ALDE, EUKALIPTORIK EZ** agiria aurkeztu genuen, sare sozialetan eta ohiko komunikabideetan egindako kanpaina zabal baten ondoren. 2358 norbanako bat egin zuten gurekin eta baita 14 talde atxikitu ziren. (Ikusi kanpainaren emaitzak hemen)

ZERGATIK GIDA HAU?

BASO BIZIAK PLATAFORMAn ùste dugu oso garrantzitsua dela udaletan, **BASO BIZIEN** proiektuak aurrera eramateko, hainbat talde egiten ari diren lan isila jasotzea, ordenatzea eta ezagutzera ematea. **MOZIOEN GIDA** hau eskaintzen diogu bide hori jorratu nahi duen edonori, baliagarria izango zaiolakoan.

SARTU HARREMANETAN GUREKIN

basobiziakplataforma@gmail.com



AURKIBIDEA

DATUAK

- Mozioak LURRALDEKA eta BAILARAKA aurkezten dira.
- Nork, non, noiz eta zer mozioa aurkeztu duen, ematen da.
- Alderdiek emandako botoak, eta emaitza agertzen dira.

LABURPENA

Mozioen eta bestelako erabakien LABURPENA ematen dugu, herriz herri, testu osoaren lagungarri eta aringarri. Dokumentu hau eguneratzen joango da ekimen berriak sortzen diren neurrian.

GALDERAK, ZALANTZAK

Hainbat moziotan egindako eskaerak zalantzazkoak izan daitezke, nondik irakurtzen diren ikusita; horregatik galdera, zalantza gisa, jaso eta bereiztu ditugu bakoitzak bere gogoetak egin ditzan.

GEHIEN ERREPIKATU DIREN ARGUDIOAK

Mozioetan, argudio batzuk besteak baino gehiago errepikatzen dirau, horiek baitira pisurik handiena dutenak. Hori dela eta atala honetan jasotzen ditugu, dagozkien esteka batzuez lagunduta.

OHARRAK

Hemen jasotako informazioa, zuzenean edo zeharka taldeetatik edo udaletatik dator; dena den, ez dugu ukatzen akatsen bat edo beste, eskuratu gabeko datuak, egon daitekeela baina ez da izango ahalegindu ez garelako. Hori dela eta, azpian daukazuen helbidera jo dezakezue zuzenketak, aipamenak, balorazioak proposatzeko orduan. Mila esker.

GIPUZKOA

NON-NORK-NOIZ-MOZIOA-BOTOAK-EMAITZA



BERGARA- POL-POL

- [Moziaren testua](#)
- Alde: EH BILDU: 9 boto/ Kontra: EAJ-PNV 7+ PSE-EE
- Eraitza: EUKALIPTOA DEBEKATU

ANTZUOLA -EH BILDU

- [Moziaren testua](#)
- Alde: 5 EH Bildu / Kontra: 3 EAJ-PNV+ 1PSE-EE
- Eraitza: EUKALIPTOA DEBEKATU
- [Informazio osagarria: argazkia](#)

SORALUZE-BASO BIZIAK

- [Moziaren testua](#) / 2020-07-02
- Alde: Aho batez onartua: EAJ, EH Bildu eta PSE
- Eraitza: MOZIOA ONARTUA

EIBAR-BASO BIZIAK

- [Moziaren testua](#) / 2020-10-26
- Alde: EH Bildu + PODEMOS/Kontra: EAJ-PNV/Abstentzia: PSE-EE/Berdinketa erabakitze alkaterearen botoa abstentzia izan zen.
- Eraitza: EZ DA ONARTU

EIBAR-EAJ-PNV

- [Kontra-moziaren testua](#)
- Eraitza: EZ DA ONARTU

MENDARO- ???

- [Moziaren testua](#)
- Aurreneko puntuaren bi bertsio aurkeztu ziren eta Bilduk eta PSE-EE bigarren bertsioaren alde egin zuten. PNVkoa bertan behera geratu zen, ez zuten gehiengoa eta. gainontzekoetan bat etorri ginen denok
- Eraitza: MOZIOA ONARTUA

MUTRIKU-BERDEAK ETA INDEPENDENTEAK

- [Moziaren testua](#) /2019-03-?
- Alde: 1 B+I / Kontra: 6 EAJ+6 EHBildu
- Eraitza: EZ DA ONARTU

ZUMAIA-EH BILDU-2021-03- 22

- [Moziaren testua](#)
- Alde:9 EH Bildu/ Kontra: 7 EAJ-PNV+1 PSE-EE?
- Eraitza: MORATORIA ONARTUA

ZUMAIA- EAJ-PNV- 2021-03- 22

- [Kontra-moziaren testua](#)
- Eraitza: EZ DA ONARTU

ORDIZIA-NATURKON-2020-11-26

- [Moziaren testua](#)
- Alde:7 EH Bildu+2 Ordizia Orain+1 PSE-EE/ Emendakina: 7 EAJ-PNV
- Eraitza: MORATORIA ONARTUA

ORDIZIA-EAJ-PNV

- [Emendakina](#)
- Eraitza: EZ DA ONARTU

LEGAZPI-???

- [Moziaren testua. ???](#)
- [Alde/kontra???](#)
- Eraitza: EZ DA ONARTU

ITSASONDO-EH BILDU-2020-11-16

- [Moziaren testua](#)
- [Alde/ Kontra???](#)
- Eraitza: EUKALIPTOA DEBEKATU
- [Informazio gehigarria: lurra interes publikoa](#)

OIARTZUN-NATURKON

- [Moziaren testua: ???](#)
- Alde: 12 EH Bildu / Kontra: 4 EAJ-PNV
- Eraitza: EUKALIPTOA DEBEKATU
- [Informazioa gehigarria: lurra interes publikoa](#)

GIPUZKOA



NON-NORK-NOIZ-MOZIOA-BOTOAK-EMAITZA

HERNANI-NATURKON

- Mozioaren testua :???
- Alde/ Kontra: ???
- Emaidza: Datozen bi urtetan(2021-22) 90 Ha. mendilur eskuratu eta bertako espezieak landatuko dira, espezie aloktonoen hedapena gelditzeko.

LEGORRETA-NATURKON

- Mozioaren testua
- Alde/ Kontra: ???
- Emaidza:MORATORIA ONARTUA

ATAUN-NATURKON

- Mozioaren testua:???
- Alde/ KONTRA:???
- Emaidza: MORATORIA ONARTUA

IKAZTEGIETAN-NATURKON

- Mozioaren testua:???
- Alde/Kontra: ???
- Emaidza: MORATORIA ONARTUA

OLABERRIA- ???

- Mozioaren testua:???
- Emaidza: LURRAK EROSI
- Informazio osagarria: [lurrak interes publikoa](#)

LAZKAO-???

- Mozioaren testua:???
- Emaidza: LURRAK EROSI
- Informazio osagarria: [lurrak interes publikoa](#)

ORENDAIN-???

- Mozioaren testua:???
- Emaidza: LURRAK EROSI
- Informazio osagarria: [lurrak interes publikoa](#)

BALIARRAIN-???

- Mozioaren testua:???
- Emaidza: LURRAK EROSI
- Informazio osagarria: [lurrak interes publikoa](#)

LEGAZPI-BERDEAK INDEPENPENDIENTES-28-07-2021

- Mozioaren testua:???
- Alde/ KONTRA:???
- Emaidza: EZ DA ONARTU

LABURPENA

- Lau MOZIO mota aurkeztu dira:
EUKALIPTOA DEBEKATZEA
EUKALIPTOAREN MORATORIA
LUR EROSKETAK
BESTELAKO MOZIOAK

ONARTU DIRENAK

EUKALIPTOA DEBEKATZEA:
Bergara, Antzuola, Itsasondo. Oiartzun

EUKALIPTOAREN MORATORIA:

- Zumaia, Ordizia, Legorreta, Ataun, Ikaztegieta,

LURRAK EROSTEA:

- Olaberria, Lazkao, Orendain, Baliarrain.

BESTELAKO MOZIOAK:

- Soraluze, Mendaro,

ONARTU EZ DIRENAK:

- Eibar, Mutriku, Elgoibar,

BIZKAIA



NON-NORK-NOIZ-MOZIOA-BOTOAK-EMAITZA

BERMEO- EH BILDU-2020/11/12

- [Mozioaren testua](#)
- Alde/ Kontra ???
- Emaidza: ???

BAKIO-HARIA-???

- [Kudeaketa jasangarriaren alde](#)
- Alde/ Kontra: ???
- Emaidza: MOZIOA ONARTUA

BERRIATUA-EH BILDU-

- [Mozioaren testua](#)
- Alde: EH Bildu 6/ Kontra: EAJ-PNV ez zen plenora agertu.
- Emaidza: MOZIOA ONARTUA

IURRETA-DURANGALDEKO BASOAK-

- [Mozioaren testua](#)
- Alde: 6 EAJ + 4 EH Bildu+ 1PSE-EE
- Emaidza: MOZIOA ONARTUA

OTXANDIO-UDALAK-2020/08/10

- [Antolamendu plana](#) / [Ingurumen azterketa](#)
- [Bertako basoak berreskuratzen](#)

BUSTURIA- ZAIN DEZAGUN URDAIBAI-2021/05/26

- [Mozioaren informazioa](#)
- Kontra: 5 EAJ-PNV + 3 EH BILDU+1 BIT
- Emaidza: MOZIOA BERTAN BEHERA



EA- BASOKIDEAK-2021/07/19

- Mozioa: ???
- Alde/Kontra:???
- Emaidza: LURRAK EROSI (7 Ha.)
- Informazio osagarria: [Basokideak, Eako basoak lehengoratzeko ekimena.](#)

MAÑARIA- UDALAK-2021/07/27

- Mozioa:???
- Alde/Kontra:???
- Emaidza: LURRAK EROSI (4,1 Ha.)
- Informazio osagarria: [Mañariko udalak 4,1 Ha.ko lursail bat erosiko du](#)

[LARRABETZU-ALKATETZAREN DEKRETUA- Lurrak eskuratzeko dekretua](#)

LABURPENA

- Lau MOZIO mota aurkeztu dira:
EUKALIPTOA DEBEKATZEA
EUKALIPTOAREN MORATORIA
LUR EROSKETAK
BESTELAKO MOZIOAK

ONARTU DIRENAK

EUKALIPTOA DEBEKATZEA:

-

EUKALIPTOAREN MORATORIA:

-

LURRAK EROSTEA:

- Ea, Mañaria

BESTELAKO MOZIOAK:

- Iurreta, Berriatua, Otxandio

ONARTU EZ DIRENAK:

- BUSTURIA

ARABA



NON-NORK-NOIZ-MOZIOA-BOTOAK-EMAITZA

ARAMAIO-

- Mozioaren testua
- Alde/ Kontra ???
- Emaitza: ??? ONARTUA

AMURRIO- UHANDRE- ???

- Mozioaren testua
- Alde: 7 EH Bildu + 1 Orain Amurrio/
Abstentzioak: 8 EAJ-PNV+1 PSE-EE
- Emaitza: EUKALIPTOA DEBEKATU



LABURPENA

- Lau MOZIO mota aurkeztu dira:
EUKALIPTOA DEBEKATZEA
EUKALIPTOAREN MORATORIA
LUR EROSKETAK
BESTELAKO MOZIOAK

ONARTU DIRENAK

EUKALIPTOA DEBEKATZEA:

- Amurrio

EUKALIPTOAREN MORATORIA:

-

LURRAK EROSTEA:

-

BESTELAKO MOZIOAK:

-

ONARTU EZ DIRENAK:

-

Laburpena

MOZIOEN ETA BESTELAKO ERABAKIEN LABURPENA EMATEN DUGU, HERRIZ HERRI, TESTU OSOAREN LAGUNGARRI, IDEIA NAGUSIENEKIN.

EIBAR

MOZIOA

- EAeko Aipamen zientifikoa
- Bertako egoera
- ESKAERA: Bioaniztasuna kontuan hartuta, Udalak BERE ESKUAN DAGOEN GUZTIA EGINGO DU DEBEKATZEKO
- Jaurlaritzari: Inbaditzaileen katalogoan sartzeko eskaera
- Diputazioari: eukalipto gehiago ez eta daudenak ordezkatu.
- Udalari: Aholkularitza: lur jabe eta baserritarrei

KONTRA-MOZIOA

- **Basogintzaren EGINKIZUNA aitortu**
- **ABANDONOA**
- **Espezieak ez dira arazoa**
- **Bide debekatzaileak ez erabili**

MUTRIKU

- Espainiako katalogoa
- Pinus insignisaren gaisotasuna dela eta eukaliptoaren zabalkuntzari buruzko datuak eta lege lokal batzuk.
- EuskadiKo legedia
- ESKAERA: Katalogoan sartu arte MORATORIA
- Jaurlaritzari: Inbaditzaileen katalogoan sartzeko eskaera -3-
- Diputazioari: eukalipto gehiago ez eta daudenak ordezkatu-3-

ITSASONDO

- EAeko aipamen zientifikoa -2-
- Legeen aipamena INBADITZAILE dela frogatzeko
- AZALeraren BILAKAERA
- Udallerriaren ESKUMENAK zeintzuk diren arlo honetan
- ESKAERA: EKOSISTEMAK HOBETZEA
- PLAN OROKORRA 2011koa (zaharkitua)
- ERABAKIAK: Plan Orokorra berritu arte
- Jaurlaritzari: Inbaditzaileen katalogoan sartzeko eskaera -2-
- Diputazioari: eukalipto gehiago ez eta daudenak ordezkatu.-2

ZUMAIA

MOZIOA

- Pinus insignisaren gaisotasuna dela eta eukaliptoaren zabalkuntzari buruzko datuak-2-
- Espainiako katalogoa-2-
- EAeko Aipamen zientifikoa-3-
- Inbaditzaileen katalogoa ERATZEKO ESKUMENA EAEn
- Udallerriaren ESKUMENAK zeintzuk diren arlo honetan-2- (Itsasondo)
- MORATORIA EZARRI-2-(Mutriku)
- Jaurlaritzari: Inbaditzaileen katalogoan sartzeko eskaera -4-
- Diputazioari: eukalipto gehiago ez eta daudenak ordezkatu-4

KONTRA-MOZIOA

- **Basogintzaren EGINKIZUNA aitortu**
- **ABANDONOA**

MENDARO

MOZIOA

- AGENDA 2030 eta EUROPA 2030 en jomugak: basoak, lurzoruak eta hezeguneak berreskuratzea.
- Biodibertsitatea, natura ondarea, garapen ekonomikoa, zerbitzu ekosistemikoak.
- Bertako basoen bilakera-2-
- KONPROMISOAK: Babes gune bereziak IDENTIFIKATU, ZAINDU
- BASOGINTZA JASANGARRIA SUSTATU.
- Lur jabeekin HITZARMENAK bete
- Murriztu kanpokoan interes ekonomikoengatik lurren erosketa.
- Aurrekontu bat bere jabetzakoak kudeatzeko
- Landaketen arabera dirulaguntzak
- Laguntza tekniko eta aholkularitza

BERMEO

- Herriko basoen inguruko gogoeta (Bertako egoera)-2-
- Pinuaren krisiak gogoeta
- lehentasunezko gaia (larrialdi klimatikoa)
- Pandemiak mendietara eraman gaitu
- Zientziak frogatu ditu eukaliptoaren kalteak
- Biodibertsitatea eta pandemia
- TONPOiko proiektua (lokala)
- Basoen ERRESILIENTZIA
- LURZORU PUBLIKOAREN DEFENTSA
- GEHIGARRI interesgarria dauka mozioarekin batera

IURRETA

- Pinus insignisaren gaisotasuna dela eta eukaliptoaren zabalkuntzari buruzko datuak-3-
- Txosten zientifikoa
- Eusko Jaurlaritzaren 2019ko larrialdi klimatikoa eta gure basoak
- **Diputazioari ESKAERA: espezie aloktonoak, bertakoetara pasatzea. (udal lurretan)**

AMURRIO

MOZIOA

- Pinus insignisaren gaisotasuna dela eta eukaliptoaren zabalkuntzari buruzko datuak-4-
- Politika PUBLIKOen falta eukaliptoaren zabaljundea uzten ari da (datuak)
- Txosten zientifikoa
- Lobbien interesak denon interesen eta beharren kontra.
- Udalak BAI DEBEKATU DEZAKE eukaliptoan landaketa. AHALMENA DU, beraz.
- Lur publikoetako Antolakuntza planean jasotzea debekua.
- DENEGAR LICENCIAS MUNICIPALES DE OBRA.
- Que se redacte y tramite urgentemente una MODIFICACIÓN del PLANEAMIENTO URBANÍSTICO vigente de Amurrio con el objeto de regular el uso del eucalipto en el término municipal, en el caso de que la aprobación definitiva del nuevo PGOU en trámite se vaya a prolongar en el tiempo.
- MORATORIA
- para su adopción conjunta en toda la CAPV.
- plan para la compra de montes de titularidad privada para reforestar con especies autóctonas.

GEHIEN ERREPIKATU DIREN ARGUDIOAK

ARGUDIO ZIENTIFIKOAK

- 2018an, Eusko Legebiltzarrak eskatuta, EHUko talde batek, Arturo Elosegiren gidaritzapean, ARANZADIrekin batera, egindako IKERKETA ZIENTIFIKOAK EUKALIPTOARI BURUZ.
- INBADITZAILEEN KATALOGOAN SARTZEA.
- MORATORIA ESKATZEA.
- LARRIALDI KLIMATIKOAN gaude. Monolaborantzaren ohiko zikloa aldatu behar dugu, ez da jasangarria.
- AGENDA 2030 eta EUROPA 2030 en jomugak:basoak, lurzoruak eta hezeguneak berreskuratzea.
- Babes gune bereziak IDENTIFIKATU, ZAINDU.

ESKAERAK UDALARI

- Herriko BASOEN EGOERA, BILAKAERA ETA ERABILERA ezagutu.
- AHOLKULARITZA baserritar eta lurjabeei, Udaletxetik. Lur jabeekin HITZARMENAK bete.
- Zeintzuk dira Udalaren ESKUMENAK arlo honetan?
- BASOGINTZA JASANGARRIA SUSTATU.
- **LURZORU PUBLIKOAREN DEFENTSA**
- Hirigintza planaren eraldaketa bultzatu.
- Obra-lizentziarik ez eman.

ESKAERAK DIPUTAZIOEI, JAURLARITZARI

- Espezie aloktonoak, bertakoetara pasatzea. Monolaborantza intensibotik basorantz trantsizioa martxan jartzea.
- Eusko Jaurlaritzaren 2019ko larrialdi klimatikoa eta gure basoak. Zertan da?
- Biodibertsitatea, natura ondarea, garapen ekonomikoa, zerbitzu ekosistemikoak kontuan hartzea legedian.

KONTRA-MOZIOA

- **Basogintzaren EGINKIZUNA aitortu.**
- **ABANDONOA da arazoa.**
- **Espezieak ez dira arazoa.**
- **Bide debekatzaileak ez erabili.**

GALDERAK, ZALANTZAK

Hainbat moziotan egindako eskaerak zalantzak izan daitezke, nondik irakurtzen diren ikusita; horregatik galdera, zalantza gisa, jaso eta nabarmendu ditugu bakoitzak bere gogoetak egin ditzan.

UDALAK DEBEKA DEZAKE EDOZEIN LANDAKETA LUR PRIBATUETAN?

Eukaliptoak landatzeko udal-debekua ez da mendien arloko legediaren aurkakoa, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak agiri publikoetan adierazi duen bezala (Aramaioko HAPO). Beraz, ezin da argudiatu debeku hori zehazteko udal-eskumenik ez dagoenik. Interes kolektiboak defendatzeko, ingurumen-kaltearen ebidentzia zientifikoan oinarrituta, eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeak toki-erakundeei natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko neurri arauemaile edo administratibo gehigarriak ezartzeko ematen dien gaitasunean oinarrituta (bigarren xedapen gehigarria)

(AMURRIOko eta BUSTURIAko mozioetan)

OBRETARAKO UDAL- LIZENTZIA

Landaketak baimentzeko aginduzko hirigintza-baimenetan (Lurzoruari buruzko Legearen 207.1.w. artikulua) udal-lizentzia ukatzea, eukalipto-landaketen ingurumen-kaltearen ebidentzia zientifikoan oinarrituta. Ikusi: obren eta Jardueren Erantzukizunpeko Lizentziak eta Adierazpenak: zuhaitzak moztea, zuhaitz-masak landatzea, zuhaitz-bideak edo bideak irekitzea. Urbanizazio- edo eraikuntza-obrei atxikita ez dauden lur-mugimenduak

HIRIGINTZA PLANAK

.....n indarrean dagoen hirigintza-plangintzaren aldaketa bat lehenbailehen idaztea eta izapidetzea, udalerrian eukaliptoaren erabilera arautzeko, izapidetzen ari den HAPO berriaren behin betiko onarpena denboran luzatuko bada.





EIBARKO BASO BIZIEN BULETINEN LABURPENA

AZALPENA

EIBARKO BASO BIZIAK taldeak komunikazio-tresna bat sortu zuen hasieratik, jakinda zein beharrezkoa den egurzaleen eta propaganda ofizialaren aurrean guk geuk sortutako edo gure filosofiaren inguruan sortzen diren berriei eta ekimenei plaza ematea. Horrela, alde bakarreko informazioari ifrentzua jarri nahi izan diote eta, beraien baimenarekin, orri hauetara ekarri dugu, bertan agertzen den informazioa baliagarria izango zaizuelakoan.

[DOKUMENTUA IKUSTEKO KLIKATU HEMEN](#)

AKATSEN INGURUKO OHARRAK

AZALPENA

Hemen jasotako informazioa, zuzenean edo zeharka taldeetatik edo udaletatik dator ; dena den, ez dugu ukatzen akatsen bat edo beste, eskuratu gabeko datuak, egon daitekeela baina ez da izango ahalegindu ez garelako. Hori dela eta, azpian daukazuen helbidera jo dezakezue zuzenketak, aipamenak, balorazioak proposatzeko orduan.

Mila esker.



basobiziakplataforma@gmail.com

ETA ORAIN, ZER?

GOGOETAK

Orain arte egindako bideak, baso gazte batean bezala, hainbat aukera erakutsi dizkigu. Ezin gara hortan geratu, jarraitu behar dugu BASO BIZIEN dinamika garatzen, herrietan dauden indarguneak kontuan hartuta, konpromisoak lortzen, aurrekontuetan eragiten, proposamenak egokitzen. Gure mozio batek ezezkoa jaso badu, ezin dugu amore eman, indar korrelazioa aldatu baitaiteke. Bitartean, segi indartzen gure taldeak, jendea erakartzen, zure udalerriko basoak beste begi batzuekin begiratzen, ezagutzen, ikastetxeetako proiektuak (Agenda 30) gurera hurbiltzen, herritarrek bere egiten proiektua.

GAKOAK

Ez dago errezeta berririk ezta arlo honetan ere.

Zein da orain arte egindako bidea?

Informazioa zabaldu, taldeak antolatu, udalarekin eta herritarrekin harremanetan sartu, ikastetxeekin lan pedagogikoa egin, lurjabeekin eta baserritarrekin

harremanak sendotu eta aurreritziak gainditu (elkarrekin bizi baikara, elkarren beharra baitugu), landaketak, kustodiak, lur erosketa publikoak bultzatu, gure ingurumena ezagutu, babestu, errespetatu.

Bioaniztasuna eta larrialdi klimatikoa kontzeptu hutsetik haratago gureganatu.

Bestelako basogintza bultzatu, baso-monolaborantza industrialak gaindituz.

Auzolana bultzatu.

ITZULPENAK

GAZTELANIAZ

FRANTSESEZ

basobiziakplataforma@gmail.com